

# PLASTIKOAK ARRASATEN

## Eskolako Agenda 21 proiektua

Partehartzaileak: Arrasate Herri Eskola eta Arizmendi Ikastola

Munduan ekoizten den plastiko guztiaren %10a baino ez da birziklatzen

Urtero, munduan 8 miloi tona plastiko isurtzen dira itsasora eta 100-1000 urte bitartean behar dute deskonposatzeko

Itsasoan dagoen plastikoaren %80a herrietatik dator ibaien bitartez

Eta plastiko hori itsas-animalientzat kaltegarria izateaz gain, katea trofikoan sartzen ari da

UDALAKO INGURUMEN ESKOLA

2019/2020 ikasturtea



# PLASTIKOAREN GAIA AZTERTZEKO EGIN DITUGUN DIAGNOSTIKO-EKINTZAK HERRIAN

Herriko kaleetan lurrean  
botata zeuden plastikoak  
ikertu ditugu eta  
alderatu dugu  
hondartzetan agertu ohi  
diren plastikoekin



Dendetako produktuen  
plastiko kopurua aztertu  
dugu



Herriko saltokietan  
plastiko gabe erosteko  
aukerak ezagutu ditugu



Behatu dugu herritarrek  
erosketa egiterakoan  
erabiltzen duten plastiko  
kopurua



Plastiko motak eta  
hauen ezaugarriak  
ezagutu ditugu




Ezagutu ditugu itsasoan  
dauden mikroplastikoen  
ezaugarriak



Hamaitetakoan  
sortzen dugun plastiko  
kopurua neurtu dugu



Plastikoari ezetz esateko  
10 ideia lortu ditugu



Plastikorik gabeko  
jostailuak sortu  
ditugu



Ogitartekoa biltzeko telazko  
zorroa josi dugu







# DIAGNOSTIKO-EKINTZEKIN ATERA DITUGUN ONDORIOAK



Kaleetan hondakin asko aurkitu ditugu lurrean botata, garbitzailea pasa ondoren ere, zati txiki asko geratzen dira



Lurrean topatutako plastikoak eta hondartzetan agertu ohi direnak antzekoak dira



Estoldetan hondakin txiki asko daude eta bertatik erre kara eta gero itsasora doaz



Aisialdi uneetan erabilera bakarreko plastiko asko erabiltzen dugu



Plastiko gutxiago sortzeko etxetik ekarritako ontziekin pisura erostea aukera ona dela ikusi dugu



Denda batzuetan elikagaiak solte eta pisura erosteko aukera daukagula konturatu gara



Herritarren artean plastiko poltsak erabiltzea eta ontziratutako janaria erostea ohikoa da



Plastikoak oso erraz heltzen dira erre kara eta, ondorioz, itsasoan plastiko tonak ari dira metatzen



ZER PROPOSATUKO  
ZENIOKETE ARRASATEKO  
UDALARI PLASTIKOAREN  
ARAZOARI AURRE  
EGITEKO?

ETA ZUEK... ZEIN  
KONPROMISO  
HARTZEKO PREST  
ZAUDETE?

Aurtengo ikasturtea berezia izan da Koronabirusak ezinbestean etxean egotera behartu gaituelako. Horregatik, ezin izan gara elkartu, urtero egin ohi dugun bezala, eskolen arteko foroetan Arrasateko Udalarekin batera. Bertan, Eskolako Agenda 21 proiektuaren baitan jorratutako gaia eztabaidatzen genuen, ikasitakoa partekatzen genuen eta gure herriko ingurumenaren aldeko proposamenak lantzen genituen, baita gure esku dauden konpromisoak jaso ere.

Momentu berezia izanik, aurten zuen proposamen eta konpromisoak hurrengo esteka honetan idazteko gonbita egiten dizuegu:

<https://forms.gle/f9xGQvmPAhuSwvZs7>

Zuen ideiak eta proposamenak atsegin handiz jasoko ditugu eta egoerak uzten digunean berriz elkartuko gara!